

# Demokrazia eta naziotasuna

**Emilio Lopez Adan**

Hitzaldiak herritartasuna eta nazionatasunaren arteko harremanak ikertzen ditu. Kontzientzia nazional berezia duen herriak badu estatu propioa sortzeko tendentzia, eta estatuak, berriz, badu kontzientzia nazional batua sortzeko tirria. Estaturik gabeko eta estatu nazioanizdunen arteko gatazkaren sorburua nazio eraikuntzaren baldintzetan datza, eta edozein sistema politikotan ager daiteke. Gatazka nazionalen irtenbidea bilatzeko, sistema demokratikoak eskaintzen ahal ditu bide egokiak, baina gatazka horiek sorburu eta helburu propioak dituzte, demokrazia hutsak ezaba ezin ditzakeenak. Gatazka nazionalak diren estatuetan, sozietate post-nazionalendako oratu kontzeptu berriak desegokiak dira. « Abertzaletasun konstituzionala », adibidez, estatuak hobesten duen naziotasunaren zerbitzuko erabiltzen da, eta haren itxura neutroa nazionalismo dominantearen aldekoa da.

This work analyses the relationship between nationalism and nationality. Nations who have a special national conscience do trend to create an own State; the State, on the other hand, do want to promote national conscience. In any political system, the origin of the conflict between those without State and those multinational States relies on conditions for national creation. Democratic system has useful ways to reach a solution to national conflict, but those conflict have their own start-point and three own aims, which democracy can not erase. In States with national conflict, new concepts of post national societies are not adequate. For instance, constitutional nationalism is used in service of the State, and its neutral appearance plays in favour of dominant nationalism.

## 1. Aurkezpena<sup>1</sup>

Lizarrako Itunaren ondorioek mudatu dute diskurtso anti-abertzalea. Gehiengo eta gutxiengoaren arteko dialektika nola aldatu den oso nabaria izan da. «Biolentoak» gutxiengoa zirenean, gehiengoaren gobernu zen demokrazia, eta kito; orain, alderdi nazionalistak nagusi, ez da demokraziarik non gutxiengoaren nahiak eta presentzia errespetatzen ez diren. Goresmenak demokraziaren legeak ulertu dituztenei, nahiz eta aski berandu eta nahikoa behartuak. Baina berdin joko demokratikoaren barnean, ez dira prest abertzaleen gobernu onartzeko; orain gutxiengo eta gehiengoaren arazotik haratago joan dira, bai eta baieztatu ere, Euskal Herria sozietate anitza izanik, abertzaletasunaren proiektu hegemonikoa inkompatiblea dela demokraziarekin.

Euskaldunen abertzaletasuna, diote, nazionalismo zahar eta agresiboen baloreen gainean eraikia dago. Euskaldunentzat nahi du Euskal Herria, eta borondate hegemoniko hori, berez, bazterkeria eta bortizkeriaren iturria da. Gehiago dena, lotsabakoenek etengabe darabilte nazismoaren mamua: edozein nazionalismo, eta euskaldunena bereziki, faszista da naturaz. Haien ustez, nazioari edukin demokratiko eta moderno eman nahi bazaio, aniztasunaren gainean finkatu beharko da, biztanle guztien eskubideak eta nortasuna errespetatuko dituen aniztasunaren gainean.

Ez dugu arbuatuko biztanle guztien errespetua eskatzen duen teoria. Egia esan, ez da oso aurkikunde zorrotz eta berria.

Nazionalista ez omen direnen ikus-moldean beste gauza batek harritzen gaitu: zergatik abertzaleen helburua, hots, independentzia edo burujabetasuna, inkompatiblea da errespetu horrekin? Finean, haiek eskaintzen digute Espainia multinazional bat, euskaradunen eskubideak errespetatzen dituen; guk nahi duguna, erdaldunen eskubideak errespetatuko dituen Euskadi libre bat, zertan da naturaz desberdin?

Haien logika aski erraza da: ba omen dira bi modelo nazional, bat ona (Espainia demokratikoa) eta bestea txarra (Euskal Herri "etnikoa"). Polemika zahar hori ezaguna da eta iturriak Frantzian daude. Frantses jakobinismo errepublikanoarentzat, naziotasun modelo frantsesa (zibikoa) bikaina da, eta germaniarra (etnikoa), guttiz galgarria.

Modelo germaniarrean, naziotasunaren oinarriak etno-historikoak dira; Herder-en bidetik definitu bezala, hizkuntza propioa duen jende-talde iraunkorren esperientzia historikoen inguruan lotzen dira nazioak. Jakobinoentzat, ikusmolde hori irrazionala da, arrazismo eta agresibitatearen abiapuntua. Nazional-sozialismoa dute haren ondorio logikotzat.

Berriz, modelo frantsesa oinarri zibiko-demokratikoetan eta arrazionalitatean finkatzen omen da eta jende eskubideen bermea da. Naziotasuna aukera

---

1. Bilbon 1998ko abenduan U<sup>EU</sup>k antolaturiko jardunaldietan irakurritako testua da lan honen oinarria.

indibidualen ondorioa da, eta herritar guztiek, edozein izanik ere bere jatorri etniko-linguistikoa, libreki onartzen dute lege eta estatu beraren barnean bizitzea. Frantzia aukeratu zutenek askatasunaren aberria hautatu zuten.

Jakobinoak ez direnek ongi dakite bereizketa hori guztiz ahula dela. Nola ahaztu, adibidez, germaniarren nazionalismo modernoa Napoléon-en aurka agertu zela? Frantziako iraultzaren balore unibertsalen hedatzeko konkistatu omen zuten Europa, baina lehen nazionalista germaniar horiek jazarri zitzaien armada atzerritar batek inposatu inperialismo kultural frantsesaren aurka. Beraz, hasiera liberal eta progresista... frantsesen inbasio inperialistaren aurka.

Edozeinek daki Iraultza Handi unibertsala eta nazionalismo frantses arrunta sakonki nahastu zirela. Frantses modeloaren barnean denetarik ageri da, arrazismoa, kolonialismoa eta Hexagonoko herrien etnozidua barne. Nazionalismoaz mintzatzeko, intelektual jakobinoek eta bere miresle turkiar eta espainolek salbu, inork ez du onartzen ikusmolde absolutu eta errazegi hori. Gure intelektual anti-nazionalistek beharko lukete probintzianismo borbonikotik zertxobait atera.

Nazionalismoa errealitate anitza da eta ezin bi modeloen maratilaz gaketu. Aski natural eta unibertsala da; jendeak badu taldean bizitzeko joera eta taldeen existentziak auzoekiko desberdintasunen kontzientzia eskatzen du. Nazioa noiztik den eztabaidatzen ahal bada ere, Aro Moderno eta Garaikidean sortu formen inguruan lotu da munduko erakundatze politikoa. Eta erakundatze hori konfliktuz beteriko prozesua izan da. Herri zapalduentzat, askatasunaren bermea izan da nazionalismoa; inperioentzat berriz, zapalkuntzarako estakurua.

Hemendik ondorioztatu da bi nazionalismo badirela: ona, zapalduena, eta txarra, zapaltzaileena. Baina, hemen ere, bereizketa desegokia da. Pre-faszista alemaniarren abertzaletasuna, herri zapaldu eta umiliatuaren sendimenduetan finkatu zen; kolonialismoaren aurka eta justizia osoaz askatu ziren estatuetan, nazionalismoak elikatu ditu diktadura, ustelkeria eta barne-zapalkuntza ikaragarriak. Azken finean, jende eskubideei eta askatasunari begira, nazionalismoaren ondorioak ez dira eite-batekoak eta beti berdinak. Kasu bakoitzean ikertzeko dira eta, barnean gaudenean, askatasuna eta eskubideak bermatzen dituzten balore unibertsalekin osatzekoak.

## **2. Ingurune demokratikoa eta nazioa (herritartasuna eta naziotasuna)**

Herritartasuna erabiliko dut “ciudadanía” edo “citoyenneté” esateko. Polemika linguistiko zaharra dabil euskaltzaleen artean. Gehienek “hiritartasuna” onartu dute, baina espainolaren eragin sobera duela iruditzen zait. Frantsesek, adibidez, bereizten dituzte hirien biztanlea (“citadin”) eta estatuan eskubideak dituen (“citoyen”); euskal tradizioan, “herritar” eta “hiritar” ere ez dira gauza bera. Agian linguistek barkatuko dizkirate hutsak, eta bitartean irakurleak badaki: hemendik aurrera “herritar” eta “herritartasuna” erabiliko ditut.

Beraz, herritarra da erresuma batean eskubide politiko eta zibikoen jabe dena. Hego Euskal Herrian, adibidez, herritarraren kalitatea espainol guztiei

onartzen zaie, eta ez batere beste nazionalitateko euskaldunei. Berriz, naziotasunaren edukina ez da beti egoera politiko-administratiboari mugatzen, eta, usu, herritartasunak eta naziotasunak ez dute bizi sozial eta politikoaren esparru bera estaltzen.

Estatua zer den badakigu ere, nazioaren definizioa ez da finkatua. Fenomenoaren aniztasuna dela eta, definizio zabalena da egokiena: nazioa, alegia, identitate bereziaren jabetza eta bere gain izateko borondate politikoa biltzen dituen jende multzoa da. Identitatea zertan finkatu, aldakorra da: etnia eta hizkuntza modelo germaniarretan, estatu zentralistaren eragina Hegoaldeko Europan, geografia Hego Amerikan, erlijioa serbiar eta kroaziarrak bereizteko, kolonizazioak sortu egokiera geo-politikoak Afrikan..., modelo ezagunak eta desberdinak dira. Alta, oinarriak ez ditu kategoriak sortzen; finean, jatorria bat edo bestea izanik ere, identitate nazionalaren kontzientziak zilegitzen du proiektu politikoa.

Gero, joera nabaria dago herritartasuna eta naziotasuna identifikatzeko. Boterea eta legitimitatearen arteko dialektikan sartzen gara bete-betean. Nazioak nahi du botere politikoa bereganatu eta nazioarteko ezagutza lortu, mundua osatzen duten beste estatu-nazioen hein berean egoteko. Estatuak, bere aldetik, nazioaren karga sinboliko eta soziala bereganatu nahi du, botereari naziotasunaren zilegitasuna emateko. Bi kasuetan, nazionalismo emergentea behetik gora, eta estatua goitik behera, biak saiatuko dira eraikuntza nazionalaren faktore politiko eta kultural guztiak jabetzera.

Naziotasuna eta herritartasuna batzea izan zen, hain zuzen, Europako hemeretzigarren mendean asmatu "nazionalitateen printzipioa", usu aipatu eta askotan aplikatu dena: nazionalitate bakoitzari estatu bat dagokio. Badira beste modelo batzuk ere, hala nola estatu federal eta konfederalak, hemen egonkorak eta han gerla sorburuak. Azken finean, nazionalitateen printzipioa ere ez da unibertsala; nazio arazoen irtenbidea anitza da, eta lekuan lekuko botereen arabera bideratzen da.

Aipatu berria dugu herritartasuna eta naziotasuna identifikatzeko joera. Alta, askotan nazionalitatea eta herritartasuna bi gauza desberdinak eta irreduktibleak dira, kasu batzuetan etsaituak. Hor dira estatu zentralistak; herritartasuna edukin etniko-linguistikiko bakar baten gainean finkatzen da, eta beste herritarrei beren nortasun etnikoa ukatzen zaie. Jakobinismoaren ondorioak ezagunak dira Frantzian, eta karikaturalak Turkian. Modelo frantsesaren ondorioak nolakoak diren sentitzeko, kurduei galdetzea aski da.

Hego Euskal Herrian ere, irreduktibletasun hori nabaria da. Eman dezagun, adibide gisa, autodeterminazioaren markoa: inoiz onartzen bada, eta ditugun mekanismo demokratiko eta Konstituzio berekin, non eta nork bozkatu beharko? Espainia osoan ala Euskal Herrian? Gehiengo eta gutxiengoaren arteko dialektikarekin bezala agitzen zaigu; marko espainola ala marko euskaldunaren zilegitasuna onartzeko, arazo nagusia ez da Konstituzioaren interpretazio juridiko hutsa: bakoitzaren nazionalismoak definitzen eta zedarritzen du alorra.

### **3. Konfliktuari bi erantzunak (eta hirugarrena, aski zerutiarra)**

#### **3.1. Aniztasun soziala eta proiektu abertzalea.**

Edozeinek daki, baita abertzaleek ere, Euskal Herria ez dela homogenea. Hemengo nazionalistek aniztasunaren arazoarekin topo egin dute eta erantzunak eman dizkiote. Erantzun horiek euskalduntasunaz eman definizioetan finkatu dira. Denek ez dute onartu definizio bat eta bakarra. Badira konstante iraunkorrak, garaian garaiko aldakinak eta sorleku politikoez markatu ezberdintasunak.

Oinarri amankomunetan, gure nazionalismoak garrantzi handia eman die historia, etnia eta hizkuntzari, eta aukera horiek esplikatzen dira garaian garaiko eragin politiko eta intelektualak erkatuz lekuan lekuko berezitasun historiko eta sozialekin. Lan honek ez digu horretarako astirik emanen.

Aldakinetan, gerla osteko belaunaldiak garrantzi handia eman zion proiektu nazionalisten klase edukinari, eta nazionalismo burges eta esentzialista kritikatu zuen. Batzuek, urrunago joanik, proiektu iraultzailearekin identifikatu zuten nazionalismo erradikala.

Orain, formulazioak aldatzen ari dira ziztu bizian, korrante nagusien ordezkari politikoak, hots EAJ eta HB, inoiz ez bezalako lankidetzan ari baitira: indar abertzaleen batasunak hegemonia nazionalistaren eta burujabetasunaren posibilitatea berraurkeztu du. Bestalde, ETAK esparru demokratikoa onartu du eta bere borroka armatuaren desagerpenak arrunt aldatu du boterearen eta errebolturen inguruko dialektika.

Aldakuntzak gora-behera, zerbait nabari dago: euskal nazionalismoak antzinako etnia, kultura, tradizioa eta dena delakoa etengabe aipatzen baditu ere, ez dela inoiz antzinako horien jarraitzaile fidela izan. Alderantziz, garai bakoitzean eta talde bakoitzaren ikus-moldeetatik, *identitatea berreraikitzen eta tradizioa berrasmutzen ari da*, oraingo xedeen eta biharko helburuen zilegitzeko.

Euskal nazionalismoak hori egin duela eta egiten duela nabaria da. Tradizioaren erabilpen horietan fantasiak, zentzu-aldaketak eta asmakizunak izan dira; omen, prozedura bitxiak eta arbuigarriak dira, eta horien salaketetan finkatu dira nazionalista ez omen diren ikerle batzuk abertzaleen irrazionaltasuna frogatzeko. Eta berriz harritu gaituzte.

Hasteko, edozein nazionalismok, estatuaren beraien nazionalismoak barne, gauza bera egiten du. Espainiako eta Frantziako testu liburuetan bada adibide aski, eta edozein ikerlek daki gure apologistak eta besteak iturri berdinetan elikatu zirela.

Gehiago dena, tradizioaren berridaztea ez da bitxikeria arbuigarria, baizik eta bizitasunaren froga eta nazio eraikuntzaren osakina. Ikerle modernoek ongi dakite, eta beraien meta-hizkuntza erabiltzeko, bizigarritasun nazionala duten komunitateetan *komunitate imaginarioaren* etengabeko produkzioa egiten da. Paradoxaz, komunitate imaginarioak dira komunitate erreal bakarrak; berreraikitzeko indarrak ez dutenak hiltzera kondenatuak dira.

Dudarik gabe, identitatearen berreraikitze iraunkorraren irakurketa sakon eta sinkronikoa egin behar da. Ez du kanorerik euskal apologisten formulazioetaz irri egitea garaiko ideiekin erkatu gabe, eta guztiz zitala da hutsak eta fantasiak euskal nazionalistengan bakarrik ikustea.

Gaurko gaiari lotuz eta pentsamendu kritikoa erabiliz, identitate imaginarioen arazo nagusia ez da haren azalpen historiko-literarioa, baizik eta oso galdera zehatz bat: teoria horiek baliatu dira arrazismoa eta besteen zanpaketa eta eskusioa justifikatzeko? Zehazkiago: euskal nazionalismoa arrazista eta esklusientea da? Horra non dagoen arazoa, eta bekoz beko heldu behar diogu.

Berehala, ebidentzia batek harrapatzen gaitu: komunitateen arteko borrokarik ez da Euskal Herrian. Badira, ba, formulazio arrazistak nazionalismo sabindarraren baitan, eta izan ere izan dira emigranteen aurkako nahikoa jarrera itsusiak. Baina arrazismo politiko eta soziala, duen edukin zehatzarekin, hau da eskubideak ukatzen dituen eta diskriminazioaren praktika sozialak onartzen dituen, horrelakorik ez da. Etorrinak oso ongi integratu dira Euskal Herriko sozietatean.

Horiek hola, euskal nazionalismoa kausitu da egoera kontradiktorio baten aurrean, eskubide zibiko guztien jabe diren euskal herritar anitz ez baitira abertzale. Eta erantzuna eman dio. Ez da zuzena esatea abertzaleek ez dutela inoiz onartu euskal sozietatea anitza dela, abertzaleez eta ez-abertzaleez osatua. Besteen existentzia kontuan hartu dute eta proiektu politiko nazionalistak, hegemonikoa nahi izanik ere, ez-abertzaleentzat eman duen lekua ez da suntsiketa edo bazterketa izan, integrazioa baizik. Hots, Euskal Herria euskaldunen lurra da, eta Euskadi libre egiteko eskubidea dugu; etorri direnei eta abertzale ez diren euskaldunei zera esaten zaie: sar eta egon gurekin, gureganatuta!

Bistan dena, eta aski errepikatu digute, edukin esklusienteak izan zituen lehen nazionalismo sabindarrak. Arrazan, katolizismoan eta euskal demokrazia tradizionalen finkatu zuen identitatea; arraza esklusientea da, integrazioa ezinezko bilakatzen du eta herritar guztien onespenerekin ez da batere uztartzen. Beraz, inkompatiblea zen hirien eta probintzien gobernu demokratikoarekin. Horregatik behar bada, nazionalismo burgesak laster desindartu zituen arrazismo horren agerpen politikoak, eta EAJ modernoak edukin ideologikoak berak ere baztertu ditu.

Ezker Abertzaleak hizkuntzari eman zion lehentasuna, hizkuntzaren jabetzea guztiz posiblea baitzaio integratu nahi duen orori. Ildo beretik eta eragin ezkertiarraz, oraingo Herri Batasunak baieztatu du Euskal Herrian lan-indarra saltzen duen edonor euskalduna dela. Oro har, ezker abertzalearen nazio-eraikuntza modeloak askatasun nazionala eta sozialismoa elkartzen ditu eta, ondorioz, zapaltzaile ez den herritar orok proiektu horren garaipenean interes objektiboak dituela baieztatzen du. Modeloaren ahulezia kontzeptual eta estrategikoak nabariak dira, nire ustez bederen, baina gaurko gaia ez da horien aurkeztea: edonorentzat garbia dena azpimarratu nahi dut, esan nahi baita Euskal Herriko biztanle guztiak proiektu abertzalean integratzeko borondatea.

Nik uste, euskal nazionalismo politikoak herritartasuna onartu die biztanle guztiei eta ez du proiektu baztertzailerik. Bestalde, badu borondate hegemonikoa Euskal Herrian eta herritar guztiak integratu nahi ditu bere proiektu nazionalen.

Tamalez, edozein nazionalismoren akatsak ditu gureak, eta, krisi denboretan batez ere, formulazio desegokiak eta baztertzaileak egin egiten dira. Lizarrakoa baino lehen, sobera maiz entzun ditugu “espainolen” aurkako gogorrak, gure garaietako internazionalista ezkertiarrentzat arbuigarriak eta gaindituak egon behar zirenak. Baina horiek pertsonen edo taldeen akatsak izan dira eta nazionalismo politiko organizatuak, eskuarki, ez ditu babestu.

Alta, euskal nazionalismoak ateari ireki badizkio integrazioari, horrek ez du biztanle guztien integrazio automatikoa ekarri edo ekarriko. Euskal Herriko sozietatean etorkinen integrazioa nahikoa ongi pasatu bada ere, gehienek espainol gisa egin dute. Ingurune kultural eta politikoa kontuan harturik, ez da arazo handirik Hego Euskal Herrian espainol izateko. Horregatik, nahiz eta sozietatean ongi sartu, nahikoa gaizki integratu dira proiektu abertzalean, salbuespenak salbuespen eta askotxo dago. Euskal nazionalismoan sartzeko arazoak dituzte. Nazionalismo espainolaren eragina nabaria da, eta komunitate nazionalistak bere buruari ematen dion edukin berezi oro eskluente bezala aurkezten zaie.

Baina modelo integratzailearen ahulezia ez da soilik koiunturala, ez dagokio prentsa eta gobernuaren eragin hutsari. Estrukturna da. Kontzientzia nazional finkatu baten lekuan beste baten ezartzea ez da oso gauza erraza. Eta erresistentzia horretarako ez da euskaldunen etsaia izan behar. Gure sozietate irekian ez da arrazismorik eta, erreferaz, lerroxismorik ere ez da: komunitateen arteko gatazkarik gabe, kontzientzia nazional espainola duten euskaldun eta etorkin gehienek jarrera ez da agresiboa. Baina bere naziotasuna aldatzeko ez dira prest. Integrazioaren modeloak ez du aski zualatu zer egin espainolista erasogari eta inperialista izan gabe Euskadin espainol jarraitu nahi dutenekin.

Gaurko Euskal Herrian herritartasuna eta naziotasunaren identifikatzeko konfliktua dago; protagonistek, euskaldunek behintzat, onartu dute demokraziaren esparrua, eta komunitateen arteko gatazka odoltsurik ez da. Abiapuntu egokiak irtenbide baketsuak bilatzeko. Baina munduan zehar bi kontzientzia nazionalen ko-egintziak badu desorekarako tirria handia. Inork ez luke gorroto nazionala piztu behar.

### **3.2. Integrazio demokratikoa eta nazionalismo espainola.**

Estatu guztiek dute naziotasuna sortzeko beharra. Edozein nazio eraikuntzan bezala, kontzientzia nazional horren formulatzea eta sortzea garaian garaiko erreferentzietan eta egoeretan kokatzen da. Hego Euskal Herria berebera duen Estatu espainolak besteek bezala egin du, propioak dituen berezitasunekin.

Kasik aipatu gabe utziko dut modelo frankista, gure berezitasun nazionalen ukatzailea eta guztiz zentralista. Haren mitologia nazionalistan gurean baino ausarkeria gehiago aurkitzen ahal da, modelo zapaltzaile eta baztertzailea izan da,

fazismoaren mota bat. Frankismoak jasan zuen porrot politiko nahikoa bere modelo nazionala deslegitimizatzeko. Alta, gaur egunean frankisten ilobek gobernatzen dute, eta nazionalismo espainol histerikoa somatzen ahal da nazionalista ez omen diren batzuen haserreetan.

Gaurko diskurtsoa beste bat da, Euskal Herrian bederen. Nazioa, komunitate anitza eta demokratikoa omen da, modelo zibiko-demokratikoan oinarritua. Trantsizioan bilbatu zen modelo hori, batez ere ezker domestikatuak hausturako ametsak baztertu zituenean. Gurean, Euskadiko Ezkerraren apustua izan zen: gure nazionalismoa mito eta sinbolo baztertzaileratetik atera nahi izan zuten, sozietatearen pluralismoan finkatzeko, pluralismoa izanik gure nortasun-zeinu nagusia. Ikusmolde horrek ez zuen arrakastarik ukan euskal nazionalisten artean, baina arazoa pausatu zuen: pluralismo horrek duen leku zentrala, ezina baita burujabetasunaren eraikitzea gehiengo zabalaren borondatea konbentzitu eta erakarri gabe.

Espainian PSOEek arrakasta gehiago ukan zuen: harek modernotu eta "zibilizatu" du nazionalismo espainola. Baina aldakuntza hori ulertu behar da, esan dudanez, trantsizioaren gorabeheren barnean. Aurrerakuntzak, bai, diktadura, zentralismoa eta espainolismo merkea baztertu baitziren, baina alor honetan ere trantsizioak tanto esankorrek eman zizkien frankistei. Jakina da euskal nazionalismoaren aurka zenbat errefera izan zen aro konstituzio-egilean, eta puntu batzuek (Autodeterminazioaren ukatzea, hizkuntza espainolaren ezagutzeko beharra, armadaren lekua aberri batasuna bermatzeko...) berez mintzo dira. Espainiako paktu demokratikoak ez du ukatu nazionalismo espainol erasogarriaren iraupena, eta atek zabalik utzi dizkio balizko mehatxu separatisten aurka.

Alor teorikoan, garrantzi handia izan zuen 1982an José Ramón Recalde-k argitaratu zuen liburuak. Hor dira, nire ustez, gaurko jarrera intelektualen sorburuak. Haren tesia laburtzeko, bada Euskadi orokor bat, proiektu amankomun demokratikoan finkatua, eta badira gero berezitasun linguistiko eta kulturalak, azken hauek eskubide indibidualak izanik. Hots, naziotasuna dagokio herritartasun hutsari, eta berezitasun kultural indibidualak babesten badira ere, ez dute zertan izan behar denen baloreak eta, are gutxiago, naziotasunaren edukina.

Oso aipatuak izan dira ikusmolde horren erreferentzia hungigarriak. Horrela, Sarajevo bilakatu da mestizaiaren ohandza, eta mestizaiaren baloreak preziatuenak. Berriz, erreferentzia etniko-linguistikoak Serbiarenak omen dira. Bakoitzak hauta dezan bere lekua, eta Jainkoak bereak ezagutuko ditu... Baina nik antz sobera handia aurkitzen diot betiko modelo frantses jakobinoarekin; ezberdintasun bat dauka, eta ez txikia: hemen onartzen dizkigute Frantzian ukatu eskubide indibidualak. Prefosta, indar harremanak ez baitira berdinak. Alta, hierarkia bera da: Konstituzioak, legeak eta gobernuaren batasunak oratzen dute nazioa, eta zilegitasun nazionala duten berezitasun linguistiko edo kultural bakarrak estatuarenak dira.

Zeren eta, eta hemen dator koska, nahiz eta askok esan modelo zibiko-demokratiko hori "ez nazionalista" dela, egitura nazional espainoletan finkatzen baita. Hitza ukatuz ez da edukina galtzen. Proiektu honetan ere, naziotasunaren funtzio sinbolikoak, kulturalak, administratiboak eta exekutiboak nonbait bete



behar dira eta zinez betetzen dira. Gaur egunean ez da funtzio nazionalisten zilegitasunari uko egiten dion estaturik, eta Espainiakoak besteek bezala egiten du. Hemen ere egitura nazional batean finkatu, bizi, eta legezatzten da herritartasuna; zergak pagatzen dira, polizia eta justizia errespetarazten digute, telebista entzuten da eta eskolara joaten dira haurrak. Funtzio guztiek erabiltzen dute hizkuntza bat eta denek bideratzen dute sinbolika nazional integratzaile bat. Ez da harrigarria alor horietan kristalizatzen badira gure sozietatearen gatazka gogorrenak. Batzuek euskara nahi eta besteek espainola, bada alor horien okupatzeko borroka franko: hizkuntza nazionalean eta balore nazionaletan murgilduta bizi gara, gu eta nazionalista omen ez direnak ere.

Gero, denek ez dugu gure nazionalismoa berdin agertarazten. Zor zaizkigun alorrak gureganatzeko, helburu horien aipamen esplizitoa egin behar dugu abertzaleek. Berriz, boterean direnek ez dute horren aldarrikatu beharrik, non kanpotik edo barnetik ez den mehatxurik agertzen. Alor baten galtzeko perilean agertzen da nazionalismo espainola bizi publikoan; bestela, era naturalaz doa. Nazionalista esplizito ez den herritar arruntaren psikologia era berean konprenitzen ahal da: normalitate nagusiaren barnean erabiltzen du bere hizkuntza eta ezagutzen ditu estatu-nazioaren sinboloak. Ez du ezer aldarrikatu beharrik. Alta, haurren eskola euskaraz bada, han ageriko da azpian dagoena, gurea bezain kargatua.

Beraz, nazionalistak ez omen direnen lanetan badira marko espainolari erreferentzia esplizitoak: Recalde-k zioen bezala, naziotasun demokratikoaren helburua da euskaldunen patriotismoa era harmonikoaz konpontzea komunitate nazional espainolaren barnean. Modeloa ez da nazionalismo frankista eta zentralista, baizik eta nazionalismo espainol demokratiko, erregionalista eta integratzailea. Baina merezimendu horiek guztiak baditu ere, jarrera horrek ezin ditu euskal abertzaleen nahikundeak ase eta ez digu irtenbide mirakulutsurik ekarriko.

### **3.3. Naziotasun guztiak hastio dituztenen kasua**

Madinabeitia medikuak, sozialista eta euskalduna izanik mendearen hasieran, esan zuen nazionalismo guztien aurka zela, eta ez zela euskal nazionalismoaren etsai soila. Pentsalari nahikoa izan da nazionalismoaren alde ilunak arbuizatzeko eta mundu berri baten ametsa egiteko, non nazionalismo guztiak desagertuko baitziren. Oraingo nazionalista ez omen direnen artean ere bada horrelakorik.

Ez naiz eztabaida honetan sartuko. Anarkisten tradizioan, ni ere estatu-nazio guztien desagertzearen alde nintzateke, non eta zanpatuak diren nazio guztiak askatzen diren lehenago. Ez nago gaurko egoera ontzat emateko eta hortik partitzeko, zeren eta zapaltzaileak eta zapalduak hein berean emateak indartsuen garaipena bermatzen eta legitimatzen baitu. Alta, gaurko gaiari lotuz, ideal horiek ez dute bizi publikoan gauzatzeko egitura edo aukerarik. Baten batek dekreta dezake nazionalisten arteko gatazkak zikinak eta interesik gabekoak direla; aparte bizitzeko eskubide osoa dauka, baina konfliktuari irtenbidea bilatzen lagundu nahi badio, ezin du aukera politikorik egin, alderdi eta mogimendu sozialen gabeziaz.

Bestalde, balore unibertsalak –jendeen eskubideak eta askatasuna bermatzeko baloreak hain zuzen–, beharrezko erreferentziak dira balore nazionalisten eremu estuetatik jalgitzeko eta gatazka nazionalen bideratzeko. Zentzu honetan, ongi etorriak dira nazionalismo guztien kritikoen lanak.

#### **4. Gatazka bideratzea...**

Horiek hola, ingurune demokratikoaren lekua zehaztu behar da eta nazionalistak omen ez direnei irekidura gehiago eskatu behar zaie.

Dudarik gabe, demokrazia da bide zuzenena sozietatea gobernatzeko. Berriz, injustziaren erresuma garaitzeko, bide instituzional demokratikoak ez dira beti egokienak, eta zapalduak sistema demokratikoetan ere badute jazartzeko eskubidea. Nire ustez, indar harremanak eta mentalitateen bilakaera ikusita, gaurko Euskal Herrian sistema demokratikoa da arazo nazionala bideratzeko modua, batez ere modelo iraultzaileen porrota ikusita. Alta, marko demokratiko hutsa eta marko nazionala ez dira gauza bera. Praktikan, herritartasuna estatu-nazioarekin lotzen da, eta euskal nazionalismo “etniko”-aren orde zezarri nahi denak oinarri nazional espainolak ditu, nahiz eta izan demokratiko, erregionalista eta integratzailea. Euskal Herrian ez du denentzat balio eta, bereziki, ez du abertzaleen nahikundeak asetzeko eta bideratzeko nahikoa eskaintzen.

Finean, abertzaleek eta espainolistek, biek dute borondate hegemonikoa. Borondate hegemonikoak ez dira demokraziarekin etsaituak non bide demokratikoak aukeratzen dituzten eta besteen zapaltzeko edo baztertzeko asmorik ez duten. Sozietate nahasietan, guztien interesen arabera gobernatu nahi duen gehiengoak, bere baitan integratzeko ateak zabalik utzirik eta horretarako bideak eskaintzen baditu, eta integratu nahi ez duten gutxiengoaren eskubideak errespetatzeko neurriak hartzen baditu, ez dago demokraziarekin etsaitua. Irlandako adibidea oso interesgarria da.

Azken finean, perspektiba kontua da: aberria non kokatzen den. Zergatik abertzaleen borondate hegemonikoa demokraziaren aurka litzateke eta espainoltasuna, berriz, demokraziaren bermea? Konfliktua nazionala da, esan nahi baita hegemoniaren beharra naziotasunaren psikologia kolektiboari dagokiola, lurraldetasuna eta kolektibitatea lotzen dituen sinbolika sakonari; demokraziak irtenbidea bilatzeko alor egokiena ematen dio, baina demokraziaren existentziak berak ez du konfliktua ukatzen edo gainditzen.

Bestalde, abertzaleen borondate hegemonikoa demokraziaren kontraktatzat jotzen bada, gobernatzen duenak hartzen du arrisku latz bat, herriaren parte handia ilegaltasunera bultzatzekoa alegia. Hain zuzen, Espainiari begira euskaldunak gara integratu nahi ez den minoria, eta gehiengoak gobernatu beharko luke denen onurako eta minorien eskubideen errespetuan. Konfliktuala dela? Horretan datza demokraziaren funtsa: nagusi direnen interesen arabera soilik gobernatzea, diktaduretan egiten da.

Era berean, nazionalisten berezitasunak, eta bereziki hizkuntza, ezin daitezke pribatuaren esferara igorri. Onartuko bagenu, minorien edo ghettoen statusa onetsiko genuke eta ez gara horretarako. Ez dago zertan onartzea

instituzione eta erakunde kolektiboetan espainola dela erreferentzia demokratiko amankomuna eta, berriz, euskararen ezartzea jasan ezinezko inposaketa. Horren dekretatzea oso bide txarra da abertzaleak integratzeko proiektu zibiko amankomunean.

Dударик gabe, oso ariketa fina da denen eskubideak bermatuko dituen sistemaz aritzea. Orain, gutxiengoan gara Espainiari begira, eta gure eskubideen errespetua eskatzen diogu. Eskubide horien artean bereiztekoa sartzen dugu, eta beldur naiz demokraziak, berez, ez digula eskubide hori bermatzen.

Bereizteko eskubidea nazio izateari dagokio, eta nazio izan ala ez izan ez da lege demokratikoetatik sortzen, historiaren emaitza da, demokrazian, diktaduran eta dena delakoan berdin existitzen dena. Demokraziak onartzen badu autodeterminatzeko eskubidea, eta eskubide horien obratzeko moduak zehazten baditu ere, ez du zehazten nori eman behar zaion. Finean, borondate garbia erakutsi duen komunitate bati emanen zaio, eta, beti, zegoen estatu handiaren borondatea gaindituz geroz. Hasiera indar harremanen kontua da; gero, gatazka era baketsu eta demokratikoaz bideratzen bada, hainbat hobeto, baina ez da esana.

Hego Euskal Herrian bada parada historiko berezia abertzaleen nagusitasuna finkatzeko. Espainolek ere ikusten dute. Estatuak aurka egiten du, herritarren arteko konfliktoak areagotzen ari dira, eta ariketaren perila dela eta, abertzale batzuek baztertu nahi dute hegemoniaren nahia. Hots, demokraziaren eta komunitateen arazoak mugatzen dituzte, dagoenaren gobernabilitateari soilik erantzuteko. Ikusmolde honek ontzat ematen du nazio espainolaren hegemonia, eta hor barnean euskaldunen eskubideak bermatzera lotzen da. Abertzaletasuna, oro har, ez dago horretarako prest. Alderantziz, gure lurretan nagusi izateko amets zaharra hurbilago ikusita, hegemoniaren nahia euskal nazionalismoaren identitate-zeinu garrantzitsuena da. Haren galtzea ez da biharko.

Euskal nazionalismoak lortu du heldutasun nahikoa autodeterminazioaren arazoa argi aurkezteko, independentziaren bidean. Konfliktoa alor demokratikoaren barnean gelditu dadin, denek egin behar dugu zerbait, eta ez naiz soilki ari su-etenaren ondoan heldu behar zen amnistiaz.

Denek. Espainolek onartu behar dute abertzaletasunaren nahikunde hegemonikoa zilegia dela; administrazioa egokitu behar da euskaldunen eskakizunei erantzuteko; bi komunitate linguistikoen arteko komunikazioa errazteko eta integrazioa bideratzeko, herritar guztiei eskaini behar zaie kultura euskaldunaren ezagutza aski. Beraz, administrazio elebiduna eta A modeloaren desagertzea eskatzen ari naiz... demokraziaren izenean eta bake zibila erdiesteko: batzuentzat, eskakizun antidemokratikoak dira.

Bada zer egin abertzaletasunaren aldetik ere. Konfliktoari erantzun demokratikoa eman nahi bazaio, autodeterminazioa herritar guztien parte-hartze demokratikoaren bidez obratuko dela argi utzi behar dugu. Hain zuzen, hori da alderdi nazionalistak esaten ari direna, baina lan handia ukanen dugu askoren mesfidantza baretzeko. Politikari espainolisten ganoragabekeriak eta komunikabide askoren nazionalismoitsuak ez digu bidea errazten.

Besteen atxikimendua lortzeko, proiektu erakargarri eta integratzailea eskaini behar diegu. Nahi dutenentzat integratzailea eta denentzat erakargarria, Euskadi libre batean herritar guztien onura eta eskubideak hobeki garatuko direlako. Atzoko austro-marxismoa, Irlandako adibidea, biharko Europa, eta betiko federalismoa eta autogestioa, oso klabe politak dira, baina horien aipatzeko astirik ez dugu.

Buka dezadan. Demokraziaren zelaian daramagun joko zabalak ez du kentzen erantzun indigenista edo autozentratuaren beharra. Oraindik ez gara zulotik atera, eta Estatu nagusiaren tolerantziaz mesfidatzea zilegi eta beharrezkoa da. Proiektu abertzalearen iraunkortasuna bermatzeko, gure sare sozialen autoeratzeta eta indartzea ez zaizkit itsusi. Gaurko haizea demokraziarena da: sakondu dezagun. Negurako erreserben biltzeak ez digu dolurik eginen.

## **Bibliografia**

- Altonaga, Kepa (1998) : *Folin markesa*. Elhuyar. Donostia.
- Beriain, Josetxo (1999) : « Del reino de Jaungoikoa al politeísmo moderno. » *La cuestión vasca*. Anthropos. Barcelona.
- Hertz, F (1944) : *Nationality in history and politics*. New York.
- Hobsawm, E eta Ranger, T (1983) : *The invention of tradition* . Cambrigde U.P. Cambridge.
- Lanceros, Patxi (1999) : « Algunas consideraciones sobre la identidad colectiva y la política. » *La cuestión vasca*. Anthropos. Barcelona.
- Lopez Adan, Emilio (1989) : *Iraultza eta Hexagonoko nazio ukatuak*. JAKIN 51 : Donostia.
- Smith, A.D. (1997) : *La identidad nacional*. Trama. Madrid.